

Abarak

MIKEL GARCIA

Ekonomiaren kalanbreak

The Shock Doctrine. Zuzendaria: Michael Winterbottom, Mat Whitecross. Dokumentala. 79 min. AEB, 2009.

MERKATU LIBREAN oinarritutako ekonomia ez da aurrera atera demokrazia eta askatasun giroan, herri-tarrek hala eskatu eta bultzatuta, baizik shock, krisi, larrialdi, hondamendi, gerra... garaiak aprobetxatuz eta, hainbatetan, inposatuta. Aski da etsai bat asmatzea, mamua, edo jendearen noraeza baliatzea, *zas!* eredu ekonomiko liberal bortitza ezartzeko. Hori da gure zinemetara iritsi berri den *The Shock Doctrine* dokumentalaren ardatza, Naomi Klein ekonomialariaren liburuan oinarritua.

Abiapuntua 1976ko Ekonomia Nobela jaso zuen Milton Friedman estatubatuarraren talka ekonomikoaren terapia da, merkatuaren erabateko askatasunean errotua. Eredu ekonomiko hori Pinocheten Txilen, diktadura garaiko Argentinan, Malvinetako gerraren osteko Ingalaterran... nola ezarri zen aztertzen du filmak, beldurrean oinarritutako ekonomiara iritsi arte,

irailaren 11z geroztik. Irak izan da inoizko gerrarik pribatizatuena, mundu osoan gertatzen ari denaren adierazle: dena da pribatizagarri, eta ondorioak latzak direla erakutsi du historiak: langabezia, pobrezia, oinarrizko zerbitzuen gainbehera...

Simplifikatzea egotzi ahal zaio liburu-dokumentalari, historiako erabaki eta urratsen atzean faktore ugari eragiten dutelako, baina dokumentu interesgarria da azken 30 urteotan nagusitu den kapitalismo basatiaren ibilbidea, lardakeria eta azpikeria politikoa berresteko. Gainera, eskertzekoa da Michael Winterbottom zuzendari britainiar handiaren ukitu serio eta zuhurra, Michael Moore-n moduko estilo teatraletik urrun.

Pelikula amaieran, esperantzarako eta kalera irteteko deia: shockarekiko ikaragaitz bihurtzen ari omen gara. Izango al da azken krisi hau, deskarga berri baterako baino, eredu honetatik ateratzeko bidea? ■



MASTER OFIZIALAK EUSKARAZ 2011-2012 <http://www.ikasketak.ehu.es>

- DBHko, Batxilergoko, LHko eta hizkuntzen irakaskuntzako irakasleen prestakuntza
- Euskal nazionalismoa XXI. mendean.
<http://www.euskalnazionalismoa.ehu.es>
- Hizkuntzalaritza eta euskal filologia.
<http://www.hizkuntzalaritzaeuskalfilologiamasterra.ehu.es>
- Hizkuntzaren azterketa eta prozesamendua.
<http://www.hizkuntzarenazterketaprosesamendua.ehu.es>
- Multimedia komunikazioa. EHU-EITB unibertsitate-masterra.
<http://multimediakomunikazioa.info>



EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea